



# Soldanella villosa

**Soldanella villosa** landare iraunkor eta errizomaduna da. Maiz, ale bat baino gehiago elkar aurki daitezke.


Hostoak bihotz borobildu formakoak dira eta kolore berde bizikoak.

Loreen eta hostoen zurtoinetan mm 1-eko iletxoak izaten ditu. Horregatik bere izena; *villosa*.

Loraketa udaberrian da eta loreak denbora gutxi irauten dute. Zurtoin bakoitzeko 1-5 loretxo ematen ditu,. Loreak kanpai-formakoak dira eta bost petalo lila, estu eta luzeak dituzte.

Urarekin harreman estua duen landarea da. Ez da batere arrunta eta ur korronteetatik gertu edo ezponda hezeetan agertzen da.

Kantauri aldeko endemikoa da; mendebaldeko Pirinioetatik Kantauriko mendiaketaraino banatzen da. Nafarroan, soilik iparraldean agertzen da eta espezie **Kaltebera** bezala katalogatua dago.





1 Basabitxilorea, iraunkorra edo urterokoa da?

2 Errizoma, sustraia eta tuberkulua, hiruak lurrazpian eta landareei elikagaiak ematen diete. Hurrengo argazkiko honakoa, jakingo al zenuke hiru horietatik zein den?



3 Ea lortzen duzun izenondo bakoitza bere esanahiarekin lotzea.


- |             |   |
|-------------|---|
| a) Villosa  | a) Zuria edo zurixka                    |
| b) Alba     | b) lletsua                              |
| c) Ofizinal | c) Sendagarria edo medikuntzan erabilia |

4 Landare bat Nafarroakoa bada eta gainera berezkoa bada

- a) Bertakoa eta inbasorea
- b) Aloktono eta endemikoa
- c) Bertakoa eta endemikoa

5 Elkartu hosto bakoitza, bere forma azaltzen duen izenondoarekin

- a) Kordatua
- b) Lerro-formakoa
- c) Trifoliatua



6 Hiru izen hauek lorearen zatiak dira: petaloa, kaliza, sepaloa. Dagokion tokian kokatu ezazu.



Erantzunak: 1) iraunkorra. 2) Errizoma. 3) a-b, b-a y c-c. 4) c. 5) a-c, b-a y c-b. 6) a-petaloa. b-sepaloa. c-kaliza.